

A Z O K A

Azoka egiteko ohitura zaharra da. Egiten ziren gauzak edo hazien ziren abereak saltzeko, erosteko edo trukatzeo beharrezkoa zen azoka. Zenbait azoka eguneroko egin ohi da. Beste zenbait astero.

Zenbait herritan hileroko egin ohi da. Urtean behin bakarrik egin ohi diren azoka famatuak ere badira, han eta hemen.

Ardiak, behiak, behorrak, oiloak, arrautzak, babarrunak, barazkiak eta abar eraman ohi dira nekazarien azokara. Era guztietako makinaria industri azokatarra.

Durango azoka honetara, ordea, liburuak, diskoak eta astekariak eraman ohi dira. X. Liburu eta Disko Azoka dugu aurten hau. Euskal Herriaren egun ohi den liburu eta disko azokarik famatuena eta ezagunena dugu. Hamar urte erezkadan egin den azoka dugu. Euskaldunen artean arrakasta sortu du.

Sal-erosketarako bakarrik ez da azoka. Beste alderidirik ere badu, noski. Giza harreman ugari eta aberatskeko leku bilakatu da azoka. Azoka bidean zabaldu eta bildu ohi da albiste eta berri asko. Ahotik ahora, giza-harreman beroaren gazi-gezaz, zabaldu eta bildu ohi dira albisteak.

Astekari eta egunkariak, irriati eta telebistatik ez zen garaian azokara joan behar zuten, zerbait jakin nahi zuenak. Egia eta gezurrak, zurrumurruak eta gertatuak, berri alaiak eta tristeak esan eta jakin ohi dira.

Saldu eta erosi, azokan salgai direnekin etxean duena neurtu, erosiaren begiak zerkit dituen betetzen ikusi, salmentak gora ala behera egiten duen jakin, besteek nondik nora jotzen duten zaindu eta abar egin ohi da azokan.

Elkarren arteko lehia eta besteak zer pentsatzen eta zer egiten duenaren jakinmina sortzen da azokan. Zeinek gauza gehiago eta hobeak ekarri saiatzen de bakoitza. Gauza xixtrin eta arloterik ez da azokan erakutsi nahi izaten. Elkarren arteko lehia ere sortzen da, beraz, azokak.

Beste inork ez duen zerbait berriak eskaini nahi izatea da, gainera. Nor gehiago honek eziaeramaera ere sortu ohi du. Honelakoak gara gizonak. Baina lehia honek urrerpapena dakar. Zailtasunak gaituzte ugalduta eta hobetu ohi dira gauzak. Bestela, loak hartzen gaitu. Lehenean geratzen gara. Atzera egiten ez badugu, gaitzerdi.

Durango Liburu eta Disko Azoka ez da liburuak eta diskoak saltzeko eta erosteko bakarrik. Euskaldunen biltoki da. Euskal kulturgingintzan ari diren guztiak hain ikusi ohi dute elkar.

Lagunekin eta etsaiekin topo egin ohi da, Lagunekin haserratu eta etsaiekin adiskidetzera ere gerta daiteke. Elkarren lana neurtu, batak bestearekin hitzegin, elkarren asmoen berri jakin, batzuk eta besteak agurtu, denetarik egin ohi da Durango azoka honetan.

Urtean zehar egin den lanaren fruitua hain agertuko da. Begiz ikusiko dugu zer egin den. Idazle eta langile berriak ezagutzeko aukera izango dugu.

Euskal kulturgingintza diharduen guztiarentzat da interesgarria Durango Liburu eta Disko Azoka. Azoka honen fruituak nonahi eta noiznahi nabarmentzen dira.

Denok Durangora. Lagun bila, poz bila, bero bila, iriti bila, berri bila, buruzpide bila, elkarrekin batera gero eta bortitzago eta biziago aurrera jo dezagun.

IRLANDARI EZ-IKUSIA

Orain dela mende erditsut bat, garai hartako izkribuak Irakerriaz egizta daitekeenez, Irlanda aldera begiratzaren zuten euskaldun askok; baita haruntz joaten ere, argi bila. Gaur, berriz, inor ere ez.

Hots, Irlandako gertakariak, belau berriari atsegin ez bazaizkio ere, hango egia aurrez aurre begiratzeko eta bilatzeko bertutea behar genuke izan.

Gauza jakina denez, gehiago ikasi ohi du Jakintzak «bitxikeriak» ulertu eta azaldu nahiz, lezro-lero burutzen diren gertakari arruntak aztertuz baino. Etsenplu ezagun pare bat ematekotan: Uranoren orbitaren «bitxikeriak» hausnartzuz aurkitu zen Neptuno; eta Merkurioren perihelioaren «bitxikeriek» funtsatu zuten Einstein-en teoria.

Irlandako «bitxikeriak» ere, horretara, argi-iturri gerta dakizkiguke; eta hango gertakariak behar genituzke hain zuten ere sakonki aztertu.

1916an afusilatutik hil ziren abertzaleen helburu bikoitza hau-ze zan: «Irlanda askatua bai, baina gaelikoa; Irlanda gaelikoa bai, baina askatua». «Askatua» esanez, jakina, «batua» ere adierazi nahi zuten; Ulster-ko bi hereneo berzte eta galteaz geroago mamitu baitzen, britaindar interes nagusien salbakuntza noizlapait bederen segurtatzekotan.

Irlanda batua eta Irlanda gaelikoa, beraz.

Baita, 1916ko altxamenduan Connolly-rekin parte hartu zuten sozialista abertzaleen aldetik, Irlanda sozialista ere.

Hots, jakina denez, Irlanda ez da batua, ez gaelikoa, eta ez sozialista.

Iparaldean, industria zuten eskualdean hain zuten, «protestanteak» nagusitu ziren Londresen laguntzarekin (Irakerri britaindar burgesia); eta inperio barruan gelditzea lortu zuten. 1922 az geroztik erdibiketa hori IRAk inoiz onartu ez badu ere, Dublingo gobernuak potto egina du; eta ontzat eman zuten jatorrizko helburuaren «batua» hura, alde batera uztea. Ekuoniaren aldetik, gainera, diruketaren sailean, % 70 gurutzatzen du gaurko Irlandak Bretaña Nagusiko gobernuarekin eta burgesiarekin; eta internazio-jokoen zeharo agertzen da Londresen adar «katoliko» baten gisara.

Pearse, 1916ko altxamendua-zen buruzagia, gaelikoaren bultzatzaile porrotkatu izan bazen ere (Dublinge lizeo batzuzan gaelikoa lehenengo aldir erakatsaraz, eta olerki suitsuak idatzi) ondoko Irlandar gobernuak ez dute hizkuntzaren arazoa inoiz seriotan hartu. Itxuraz bai, jakina: paperean, agiritzen, axalean. Esquindarrak egon dira nagusi Dublinen Eireko erresuma sortuz Irlandez geroztik. Eta eskuindarrak, Irlandan eta nun-nahi, —behinola Orixeiren lanak orrialde haue-tantz eztertuz erakutsi ueste izan nuenek—. FOLKLORE-gisa ikusten dute hizkuntzaren arazoa: besteentzako, gerorako,

eguneroko bizieratik kanporako, urrutirako, zeregin amesleri eta ihes eragile gisa. Familian erdaraz, gure artean; baina mendigailurretan erdara entzunez gero, eskomikuen erretolika azken-gabea! Gaelikoa, horrela, ezker-tar abertzaleek berehala bultzada bat ematen ez badiote bederen, galdutaz eman daiteke.

Connolly-k, hirugarrenekorik, 1916ko altxamenduan buru-orde izana, pikundue gaelikoa zeharo ontzat eta beharrezkotzat jorik ere, sozialismoaren bilakuntzan eta burrukan egina zuten bere burua. Connolly-k, eta berarekin batera Londresen aurka altxatu ziren sindikalistek eta langile gorriek, Irlanda sozialista bat eralki nahi zuten; Connolly-ren hitzez esateko, «gizadi guztiarentzako itsasargi gardena» izango zen Irlanda sozialista bat. Honen ordez, berrogeita hamar urte honetan, ultramantanoak eta atzerakoiak gertatu dira nagusi.

Eta gaur euskaldun gazteek, noski, ez dute Dublin aldera ezertaroko begiratzen.


Hain zuten ere, ordea, hauxe behar genuke denok aztertu eta

ulertu. Eta sozialistok batez ere.

Zeren-eta, hango gorabeherak aztertuak dituzten gehienek diotenez, Connolly hil ondoren behintzat, eskuindarren eskuetan utzi baituzten irlandartasuna Irlandako ezkeretarrek; eta Londresen araberako abstraktoeria hutsaletan galduta, abertzale eta gaelikozale zen herriarengandik berezi baitziren, Irlandaren geroa hauek eta haiek irtenbiderik gabe utzi.

Badugu, beraz, euskaldunok, kaso honetan luzaz eta arretaz gogoeta egink.

LARRESORO



PANORAMA BELTZA

Lehenago batean, horra zer pentsatzu hartu ninduen loak: euskaldunok izaki desagertatu batzue bano ez gara; euskaldunok gaitz izugarri-aren batek hezur-muinetaraino jota gauzkala; euskaldunok, geu konturatu gabe, ez ote garen pertsonaia arraro xamar eta interesateak beste-ekiko, arrarotasuna eta interesa—hau ere konturatzeko—geure kalte-tan esploratzu; euskaldunok ez dakigula zer izan garen, zer garen eta okerrago dena, zer nahi dugun izatea; euskaldunok patu gaitzoren baten biktima gara, geurengandik inolaz ere alienatu ezin paturen baten jostailu erraz eta manakor; euskaldunok, ba, etorkizuna esperantzari handienaz ikusi batera, ez ote garen ari ur pozointsuetan geroz eta barrenago murgiltzen.

Norbaitek galda dezake, burutik egindakoren baten solasa ezik, beste zer izan daitekeen honelako erretolika zentzugabe, ukakor eta interes gutiren agergarria. Baina, diodan, euskaldunok burutik arrunt jota ez ote gauden ere, haserako erretolikan sartu behar nuela, hau ere pentsatu bainuen loak-emeiki hartu ninduen aurretik. Beraz, elementu bat gehiago baino ez nintzeteke, Euskal Herriko (?) saltsa kuriosissimo honetan.

Eta lantuz eta nigarrez, hain errosario tristea burutik paperrera jaulkizera, zerak bultzatu ninduen, «EUSKALZAINDIA IKER LANEZ» titulua zuten Mitxelaren artikulua, 657. Z. Argian argitaratua. Artikulua irakurri ahala, euskal mundura jaio nintzen geroztik (12 urte nuen bez geroztik) nire odol eta haragi den frustrazioak geroz eta bortzi-kiago astintzen ninduen. Irakurri ahala, kasik dena negatiboa zitzaidan iruditzean. 12 urtetan astindu ninduen frustrazio hura bera hona hemen berriz ere, gupidarik gabe, hagikoa, adarka, herio minez hildura nahirik.

Norbaitek esan dezake ni oso pessimista naizela, eta «bidebetez eta horrexegatik, elementu negatiboa, eta hori ez dela aipatu patu gaitzito-ki libratzeko behar den barne giroa. Baina, diodan, euskaldunok arraz ausart eta optimista gara

ere, haserako erretolikan sartu behar nuela, loaren magalean leun-leun bildu aurretik, hau ere pentsatu bainuen. Pentsatu nuen, baina, matizazio batekin: ez ote garen inkosizientzi hain ausart eta optimis-ista.

Gure euskararen joanari begiratu bat eman eta uka ezinezko panorama beltza bistaritzen zaigu. Euskararen gaurko egoerari begi pasara bat bata eta panorama beltza. Euskaltzaindia 1918an sortu omen zen eta hitzge mailan, aipatu artikuluan Mitxelena dioenez, apenas gauza handirik dugu. Horrez gainera, zenbait hitzge aberats eta egoki, ez zaigu ezagutzera eman. Etxeberri Sarakoarena, adibidez. Eta bitartean—hau paradoxa!—milaka eta milaka aur ikastoletan eta tajuz anteko hitzge bat bakarrik ere ez neska-mutikoen eskutan. «Gramatika arloan lubunbat dauden hauzien kontua ezin kontu ahalakoa litzateke», dio Mitxelena berak. Euskal Herria «filologoz eta gramatikalariz» alderik alde jositako dago, nahiz eta haue-tako zenbaitek euskara bera ere jakinez, eta halere—hau paradoxa miresgarria!— euskal gramatika bat bakarrik ere ez ikastoletoko milaka eta milaka neska-mutikoen esku-tan. Ez hitzge, ez gramatika eta ez diru, hasi dira ikastolak emetzen, anderoio-maixuak dakitentezkoa (mes-preziorik gabe) nola edo hala, baina bonderdierik onenaz irakosten eta zera, «pentsatu ote den noinora eramango gaituen gramatika batera ala bestera erantzuteak». Eta pentsatu beharreak hau ere, dudarik gabe. Eta euskal literatura ez omen dugu behar bezain sakonki aztertu, batez ere azken aldietakoa. Eta... dena doinu hontako eresia.

Bai, euskaldunok izaki desagertatu batzue baino ez gara, nonbait. Beltza baita gure panorama. Ez gara benetako abertzale eta horregatik gaud-ede, gauden bezala. Eta halere, aitortu behar: gehienok ikusten dugu, urrutixago bedaikere, beste panorama bat, itxaropenzko berdetasun bizia, deseoreen deseoz sekula allegaten ez zaigun udaberria-ren egun-sentia.

JON URRUJULEGI

ARGIA

- LABRA: Nafarroa, Kantabri eta Astu goiko Kaputxiak.
- Buruzale. Mole Nagusia. 25-1.
- Domestika. Oseada. 22.
- Yell. 41-68-68.
- Onakoiak: Kalekako Neska Iturria.
- ARRIPE SARBA: Barruan 499 geroz.
- Korroko bitasunak 629 geroz.
- Azerriak lehoi berriak 435 geroz.
- Aitza. Alder 4000 geroz.
- Saimenta (ete bakoitza) 10 geroz.
- Moldiztegia eta idaztegia «Gráficas Navasas».
- 4. Adoan. 1. IRUINEA.
- N.º 10. 1983.

EGUN EGUNGOA

BAITA HORI ERE

Leiretik nentorrela, arratsko bezperak entzunda, Iruine ondoko taberna batetan gelditu naiz. Gipuztako asko bertan, mokokada jaten, garagardoa iresten eta... Santander aldeko doinu bat kantatzen ari.

Oi futbol-zaleok! Hizkuntza galduta ondoren, gure kantu ederrak ere bihotzean ihartu ote zaizkizue?

DANIEL IBARGOITI